

# "EUSKALTZAINDIAREN OHARRA" dala-ta

## ERIO TZ - ZIGORRA

Vida Nueva'k, 748'gn. zerbakiak dakazkien zenbait erakutsi sakonekin, bidezko da zigor kupigabe onen aurka giro jator bat sortzea.

Ba-da oraindik gure artean eriotz-zigorra, nahiz eta ori kentzeko eskabideak agurtzen ari an eta emen. Lege biez-gabe au kentzea eskatu zuten aurtengo garagarrilean Leon-en bidu ziran lege-gizonek ere.

Alaz guziz ere or jarraitzen du oraindik errialde askotako legedian. "Izan ere bai omen dute agintariek gizon gaiztoak erailtzeko eskubidea. Bai ote? Baita agintea nola-ala eskuratu dute-nek ere?"

"Legeak gaiztoarekin errazena besterik egiten etzekian garaiko ondoren aldrebes bat besterik ez dugu eriotz-zigorra. Bai errazena: garbitu. Gaur geixego jakin behar genduke".

"Garrotearen bidez urkatu oi dira geientsuenak Espaini. Urte oro lauren bat garbitu oi ditugu. Zakar abe bati loturik, kanpoan erail oi ditugu, lepa-zintzura burni-kako batzuekin estutuz. Bezere azkar ito behar luke, baiña geienetan luzaro egon oi dira ito-larrian". (Daniel Suerok, El arte de matar liburuan).

Baiña ona edonorri sortzen zaion galdara: Gizon gaizto guziak erailtzen ai dituzte?

"Ez orixe. Ez dituzte gizon gaizto guziak iltzen. Era askotako gaiztoak daude. Ezeren alderidirik gabeko gaizto arlotek eta etxea-bete lege-gizon berenganatu dezaketen gaizto aberatsak. Gaizto ezjakiñak eta gaizto jakintsuak. Urkatu geienak ezjakin eta po-break izan oi dira. Eriotz-zigorra izan dutenen izenak ikustea aski dugu ortaz jabetzeko. Edo arlotek bakarrik dira gaizto edo arloteei bakarrik eman oi zaien onelako zigor gogorra. Bietakoren bat. Dana dala, bata edo bestea, biak nahiko arrigarri".

Bai alaxe da, bada, Edo gaizki aziak eta eziaik izan diralako dira gaizkille. Edo ezin-biziak eragiten die gaizt egitera. Edo dirudun eta jakintsuak erabakitzen dute nor dan gaizto eta gaizkille. Edo diruz erosi ditezke lege-gizon eta epai-maikoak.

Egin duan okerra egin duala ere ez dugu ueste zigor gogor ori iñori opa behar diogunik. "Are gutxiago politikako jokabideen-gatik".

Erriaren onagatik batzuk erail beharrekoak dirala esan oi da. Alaxe ueste zuan Anasek ere. "Obe da gizon bakarra il dedin, erri osoa galdu dedin baiño" bait zion. Eta Jesus, gizonik zintzoena il zuten, erriaren onagatik.

Ba-zuten judutarrek ere eriotz-zigorra. Esate baterako ezkontza nahasten zutenak arrika il beharrekoak ziran. Ortan ikusi zuten emakume bat ekarri zioten Jesusi maltzurizan.

Ona emen Jesusen iritzia eriotz-zigorri buruz: "Pekaturik gabe dagonak bota bezaio lehenengo arria".

### III.—Arantzazu'raiko erabakiak.

Arantzazu'ko biltzarretarako egin zitzaion delari ondo begiratuaz, ikas-jardun edo azterketa-lan batzuetara dei egiten zigula nabari da. Euskaltzaindiak izendatutako batzordeak eta gai bakoitzeko izlariek azaldu bear zituzten beren azter-lanak euskal-idazie ta irakasleen aurrean. Edozein eskualdean zuan eskubide, bere iritzia agertzeko, dala an bertan itze, dala idatziz.

"Eta agerpen bakoitzak bere ondorean izango duen alarkiriz ematez aintzat artuko da erabagiak emateko" (Euskera, 1968, 142'gn or.).

—OO—

1'go: Itzaldia, elkarrizketak, txoxtena e.a. sakonki aztertu ondoren eta presarik gabe; soseguz eta sakon aztertzeari garrantzi aundia emanz; iru egunen buruan presaka ibiltzerai baiño saktantunari ajola geiago izanart uru bearrekoak ziralara erabakiak, esan ziteken.

An bildu gñian guziok zutirik itz-eman genuenean, zer agindu genuan au besterik? Euskaltzaindiak, itzeko eta idatzizko lan guziak aal bezain sakon aztertu ondoren artzen zuan erabakiari jarraituko gendila, alegia.

Nork ueste bear zuan, ainbeste ta ainbeste gai, ainbat eta ainbat auzi, iru-lau egunen buruan erabaki ta geldituko ziranik? Aurre-iritzirik gabe ta xalo-xalo argibide bila joan zuan inork ueste aal zezakean, iru-lau egunetako eztabaida eta jardunen buruan, ain azkar eta ain usu, an bertan erabakirik edo azken-itzik inola ere artu zitekeanik?

—OO—

2'gn: Biltzarretara egin zitzaion delak zionean, onela ziran asmoak: «Azken erabakiak, ofizialki, azaroen Onatiko Unibertsidadean Euskaltzaindiaren urre-etzetik ospatzeko izango diran jaldietan emango dira» (Euskera, 1968, 144'gn or.).

Zergatik geroko aldaketa? Zertatik sortu zan alako presa? Uste baiño azkarrago argitu ai ziran arrazoi-bideak eta auziak? Orregatik? Diralako erabakiak artzeko «giroa», itxaro zan baiño leen egin zalako? Gaur oraindik ez digute azaldu, arauz besteok aldatetaren ziorik eta arrazoirik.

—OO—

3'gn: Beste askoren artean, eldu deziaogun H'ren auziari, danetan mingarritan eta garratzetan. Ez al da arrazoiaren arrazoiz aztertzeko auzia? Ez al da bete-betean izkuntza-arloa?

Bitartean, ona emen Mitxelena jaunaren arrazoibidearen oiarrria: «H'rekiko hauzian ere, oraingo joerari segituz, Baiñoko erabakiak ar ditezke oiarriztat. Bide horretan barrena abiatuz, gero, honela ikusten ditut nik mailak». (Euskera 1968, 207'gn or.).

Izkuntzalari baten aotik, gure izkuntza-maiuren aotik ez nuan sekula itxaroko gauza arrigarriagorik. Politikari batengan, agian, orai izan dituzke bidea: «joerari segituz» erria edo dana dala, bear dan elburura eramatea. Orduan ere, segituz baiño geiago, kontuan artuaz joerak.

Elkarrizketa aietako batean, onela dio Mitxelena jaunak berri ere: «Bi bide baiiz ez daude batasunerako: edo H dutenak utzi, edo ez dutenak artu. Nik bigarren bidea artu dut... ueste dudalako... gaur ba dala indar berri bat H nahi duana...» (Euskera 1968, 246'gn or.). Batetik: Nere ueste apalean, «dutenek utzi... ez dutenak artu» idatzi bearko genduke, «nik utzi eta zuk artu» balitz bezelaxe.

Bestetik: Izkuntza-arrazoiak azaltzen al dizkiugu Mitxelena jaunak oiarrizkotat H'ren alde? Ala indarraren arrazoik? Ez al dirudi indarraren eta joeraren arrazioa gidari artu ondoren asi zitzaigula arrazoien indar eta babes bila? Indarra ikusi eta indarra arazoiz jantzi naiean bezela? Ez al du arrazioak berez naiño indarrik?

—OO—

4'gn: Arantzazu'ko erabaki edo diralazko oriek zertara zetozten? Bai al zegoen erabaki bearririk?

Esan dugun guziaren ondoren, sustrai-sustraiko galdara bat: Arantzazu'ko biltzarrek, Euskeraren batasunera irixteko bear ditugun arazo ta argibideak aztertzeko, sakontzeko, argitzeko eta erabakitze-ko ai ziran? Ala, aurrez artutako erabakiak «ofizialki» azaltzeko, eztabaida-itxura egiteko eta angore abakidatuz guzi-guzieri ezartzeko?

Galdara gaiztoegiak dirala nere oraingo auek? Mitxelena, Villasante, Garmendia jaunek, esate baterako, arturik zeukaten eskribierari ori; alaxe agertzen da beintzat Arantzazu'ko biltzarretara joan aurretik bidali zitzaigunik orrietan; eta gero era bere-berean argitaratu dituzte, Arantzazu'ko biltzarren esanera ezer aldatu bearrik gabe.

Batek luzaro erabili zuan eskribiera utzi eta aldatketa-bide batean aurrera oinkada edo pauso bat ematen baldin badu, nola egin dezake berri zateratza? Ezer zailik baldin bada gizakiontzat, orixe da bat guziz gogorra: pausoa atzera ematea.

Leengoan dijoana edo dabilena, gerta ditezke erabakirik artu gabe egotea: leengoan jarraitu ala beerriri ekin, zalanztan. Onelako, nere uestez, ibil ditezke erabakia artzeko argi bila.

Baiña bein pausoa bide beerririk emen duanik egon al ditezke beerririk bidetako, erabaki gabe? Ezetz esango nuke. Eta nork eta zeren izenaren eskatu onelakoari atzera-pausorik?

Bide jakin batean aurrera sartu danik, eskribierak beerriri (nolere-bat esateko!) ekin dionik, egon al ditezke erabakirik artu gabe? Eta erabakia arturik baldin badauka, beerriz, zeren bila ibil ditezke? zeren bila joan zitekean Arantzazu'ko biltzarretara? Zertara? erabakitzera? Zertara? erabakitzera, ala erabakiak artu-eratzera?

—OO—

5'gn: Azkenik, guzaitz eta auziak arrazoien argira erabakitzeko giroa al zan Arantzazu'n nabari zana, nagustu zana? Etzait auztuzten bilerara aietako batean danok aitu genduan... deadarra?... garxaria? Au zion norbait arek: «Zaarrik... etxera, gazteak dira euskeraren etorki-

zuna». (Euskera 1968, 245'gn or.). Itz oriek daude argitaraturik, baiña ba ziran geiago ere: «Zu zarrira zera eta laister iko zera». Ori ere esan zitzaion, argitaratzen asurtu ez badira ere. Eta etzitziaion edozein gizegajo ez-jakini esan; txantxetan ere Aita Itzari!

Esan beza A. Intza benegarri eta jakintsuak; esan beza Plazido Mujika itzegilari txit ikasiak; esan beza zitehen arerra atsegiña egin zieten beren iritziari. Bi jaun oriek bezain jakituz ez dalarik, nork itza atera giro artan, itxu-itxuan indarraren alde izan ezik?

—OO—

Guzi onen ondoren, «Arantzazu'ko erabakiak» esan bear al zaiet? Ez al dirudi egokiago «Arantzazu'ko erabakiak», aurrez arturik zeudenez?

### IV.—Euskaltzaindiaren eskuetan ai dago lema?

Mitxelena jaunak biziro egoki aitortzen duenez (ikus Z.A. 390-391), Euskaltzaindiaren eskuetan egon bear du lemak, berak gida gaitzan arnauari guziok.

Ala ai dago? Egon al ditek Euskaltzaindiaren eskuetan euskera-gailetako lema guztia artu, elkarre oriatik datozen idazki eta argiarten euskera jatorragorik agertzen ez dan bitartean?

Ikusi bestela, Arantzazu'ko biltzarretarako deia: zazpi-zortzi utsune, nere iritzian naiño nabarmenak, liburua argitaratzekoan ere zuzendu gabe agertu dira.

Ikus, Z.A. asterokoan agertu zan «oharra» bera ere.

Eta ikustekoak dira EUSKERA 1968, XIII'gn alean datozen zenbait eta zenbait agiri edo akta.

—OO—

Euskerari buruzko gaietan Euskaltzaindia ala beste norbaitzuk dira lemarri?

Zenbaitzuen esanetara edo eragieria jarri ezik, Euskaltzaindia il puska egiteko arriksua ikusten zuten askok. Ez al da egia euskaltzain askok beldur aundia izan dutela. Euskaltzaindia puskatuko zan beldurra?

Ez al da egia-egia, Euskaltzaindiak H eta beste zenbait gauza «begi onez ikusi» ez balitu Arantzazu'n, Euskaltzaindi berria edo idazle-talde berezia antolatzeko asmoak ziralara? Ez al da egia-egia ba dala eskutitzen bat (gaur idazleak berak ukatuko balu ere). Euskaltzaindi beerraren buruzagia izendatzeko bere autarkia «proposatzen» zuan norbaita?

Aztertzekoak dira itz auek: «Euskeraren batasuna edo ta utopia bat: Baionan 1964 urtean hasi zan, Er-mua eta Arantzazun jarraitu ta orain beerriz Baionan amaitu, Euskaltzaindiaren giro motela ikusirik, Euskal Idazleen Elkartearen babes-pean, aditzaren batasuna lorturik».

Ez dira nik asmatutako itzak, ez dira ansetakoak. 1970'go maiatzaren 9'an idatzik dira eta neronek dauzkat, ondo jasorik euki ere.

Zer adierazten dute itz oriek? Bakarraren iritzia, ala zabalagoa gizona? Aitortzen ote diote Euskaltzaindiari lemaritzirik? Alderantziz, ez ote dituzte beren buruak lemarri biurtzen?

—OO—

Euskaltzaindiak lema bere eskuetan artu dezan, bide bakarra ikusten dut. Ondo eta sakon pentsatu-ta, gauzak aztertu ondoren, izenda daizela Euskaltzain-talde bat bete-betean Euskeraren batasunerako argi eta bide bila benetan lan egin-gu duan taldea.

«Lan egin diot: 50 urte auetan bildutako batasun-lanak aztertu, saiaketa jakin eta zeatz batzuk ondo arazoituzki azaldu; saiaketa orien ondorena eta errian duan oiaztuna jaso; maila-mailaka oinkada beerrik eskatu bai idazleeri eta bai erriari; erria eskolatu, egu-netik egunerako obetoago artu ditzan saiaketa beerrik; emeki-emeki eta poliki, baiña idazle guzirik, erri-errian batean aurrera joan gaitzen, argi egingo digun taldea.

Bestela, eskuetatik galduta daukan lema ori bereganatu ote dezake Euskaltzaindiak?

GAZTANAGA'K

Idatzondo: «Erabiki nagusia» argitaratu zuaneko erri-bide taldearen gipuzkoar batzordeak eskatu, aztertu, zuzendu eta osatu ondoren, bete-betean batzorde-lan izateraino onarturik doaz argitaratu idazki baik.

## ZUBEROA HERIOTZARUNTZ

Oharra: Inprentaren hutssegitez, artikulu hau zuzenez beste argitaratu zan 392 gn. alean eta orain beerriz argitaratzen dugu egillake biali zigun bezela.

Txit begi onez irakurri dut Uz-tailaren hondarrean «Z. Argia»-ren 385-392. zenbakia: aurtengo Pasto-rara dela bide, orrialde oso bat eskani zion gure astekariak Ekialde-ko probintzia fimoño abzaturri. Oso izkribu politik emen zizkigun La-txaga jaunak, eta txalo jotzea me-rez duela ueste dut.

«Lurralde berexia» bataitatu zuen Latxagak Zuberoa; eta egia du: Uhatxandi bakarti hartako ibarreen barrena ibili denak ba daki hori: Euskal Herri berezia da hura, hurruntasunez eta itxuraz.

Zuberoko herri txiki haletan guzietan, azaltzen ez genekiekan zer-bat dario denari. Arbelzko teilatu haiek, herriksen kokorarik eta mi-nak, xuberotar mintzairaren dolnu harrigarri eta garratzak, kanpando-re hirukoitz isilek, mendi mazelen bekaradeak, Holzarteko osin eta zubi bildurgarriek: denak gogora-tzen bide digu han antzinako Eus-kal Herri basati, bortitz eta gogor bat. Ezina zaio eskalduni Orihi-ko menditiki Larrañera begira pausatu, eta ametsik ez egitea. Nolako amets, ordea? Ez dakit. Baiña be-rriki mintzatu naiz euskeraz kas-ko hartan kaiolar batetako hirur-tzainekin; eta sekuloko joana du-gun beste mundu batetan izana nintzela iruditzen zait gur bertan ere. Zalgeziko, Hauzeco eta Larra-ñeko hirur artzain haiek, orain dela mila urte bezelaxe, ardiak biltzera bidaltzen zituzten beren zakurrak behin eta beerriz, «txotxak» aipatu zizkidaten, Orihi-mendiko gaistake-ria izkutez mintzatu zitzaizkidan, baita «Iratiko bidiaz» (azentua lan, bai, Irati-rako laburtua bailitzten).

Inun baino egiaziago esan deza-kegu eskualdeko Zuberoan: «hau-za ere oner sorteria». Eta han hau esateko behar gorririk sendi ez duena, Basaburuan eta Pettarran bere burua arrotz atxametan due-na, sinistuta egon, irakurle: hori ez da euskalduna.

Dego herri, beraz, bere horretan. Zuberoa, ordea, ez da hori soil-ik. Ba dago besterik ere Zuberoan. Zuberoa hutsutzen ari bait da.

Hona hemen atzo irakurri nuen «Herria»-ko diona (1970/8/6). Ez du espantuka esaten, ez, lparaldeko euskaldunak «usaturik» bait daude, ohituta alegia, molde horietako be-rririk ikasten. Aste honetan, be-raz, beste antizetan bezelatsu, ho-nela zion «Herria» kasetik Mitthi-le-ko berri ematerakoan: «Ezkuntze-Lucie Pucheu, Berrogainekua, ez-kuntzi da René Choyekin. Espus gaztiak Parisen biziko dira-Jean Jacques Thicoipe eta Odile Manes Mitthilerat jin dira ezkuntzera, be-na Libourne-ko aldin biziko diri-a; mothiuko Olivier Guichard, esko-le-ko minixturaren enplegatut da. Eta dagun neskenegunian ezkuntzala da Annie Garin, Filoeneo alaba, To-losa-ko (Toulouse) antreprenur-baten semiarekin. Annie ere han da infirmiera. Gure goresmenak eta suhetik hoberenak familia gazte hoier».

Horra zertara den Matalas bil-durgarriaren herria. Hiru ezkontza aipatu kasetik, eta hirurak atzerri-ra ezkonduek!

Eta hau irakurri duaneko, orain-dik era ene barruan Larrañe-gaine-ko oroitzeneko bizi-bizirik dirau-te-larik, Zuberoaren bi aurpegiak iku-si ditut neure buruan: amets egi-tekoo eta egia gertuzarena, ania-rena eta arrotzarena. Gogora ditza-gun dato batzuk:

Zuberok: 1800-ean- 30.000 lagun 1970-ean-18.000 (=—40%) Gipuzkoak:

1800-ean- 106.000 lagun 1970-ean-650.000 (=+510%) Zergatik diferentzia ikaragarri ho-ri?

Amets egiteko Zuberoa bat bai, beraz. Baina, kasu: zertan dira zu-berotarrak, zertan dira Zubero-ko pertsonak? Ezen Jaspers-ek egoki-dion bezela: «Balore absolutu bat da gizakume bakoitza». Zuberoa, horregatik, goibel dago, ilun, beltz; zuberotarrak zapaldua bizi direla-ko, ez bait dute gehiensten sort-eria utzteaz beste itenbiderik. Ba doa uñkara, ba doa zuberotarrak, eta ba doa beitrako itxaropena be-

ra ere. Gazteriak alde egiten duen eskualdeetan eta taldeetan, gerorik ezaz, amaia eta heriotza ere gertu bait daude.

Hau ere esan behar da. «Herria»-ala horretan berean hain zuzen, «Herria»-k berak sinaturik, agertu den artikulu gogorra pozik irakurri dut. Gure lparaldea turis-mo-eskualde bihurtu nahi dutenek ez bide dituzte begi onez irakurri Christian Rudel-ek «La Croix» egun-kerian agererrazi dituen izkribu g-rratzak. Ageri denez, Rudel jaunak, guk bezelatsu, Zuberoaren aurpegi beltza aipatu du Paris-en; eta Mau-le-ko «Syndicat d'Initiative»-koek ez dituzte egia horiek istimatu... Eus-kaldunok dantza eta irri egiten emen ditugu, eta ez besterik egi-ten.

Eta, berotasun guztizkoan, hau erantzun du Baiona-ko «Herria»-k: «Zuberua Zibero bezala, Euskal Herria Euskal Herri bezala, galte-za duatzala, nihurk ez dezake uña. Zunbaiti orobat zaie; haien zuzena da. Bestak oro txiritentako eta es-tranjerentako plantatzen dira. Max-karak arripiztu dira, nuiz artino? Pastoral zumbait egiten dira Eta-ibun Iruri-ri esker. Eta gero? Ahiz-ki-ko bestak orai frantsesez egi-ten dira. Hanitz feit horrez kун-tent dira. Euskal Herria frantses edo espainul edo portuges izan dadin, orobat zaie. Haien zuzena da. Ba dira etorkizun horri bñhür-tz nahi direnak. Ikusirik azkenian nurk arrazu dian».

Bai, jaunak. Zuberoaren egia ho-ri ere ba da. Egia garratza, hori bai; beste antiz bezela.

Eta, ere harrigarriago: zuberota-rrak horretara beharra. Bai, jau-nak. Ezen Toulouse eta Paris urru-tjiago bait daude Iruñe eta Bilbo baino. Eta hemen, hain zuzen, al-derantziko gertakaria dugu: esku beharrez hemen, eraldunez beste zaizkigu bazterrarik.

Zuberotarrek ez dutea balio, or-dea, bestek hainbat?

Ez bide da eraz iditzen.

Baina Zuberoa ba doa, eta esan egin beharra dago.

LARRÉSORO